

## Etorkizuneko lorontzia

**W**illiam Wolverton ikerlariaren azken emaitza da. Ikatz aktibozko iragazkia du lorontziak eta airea ponpa baten laguntzaz zurgatzen da. Airean dauden poluitzaileen molekula batzuk landarearen hostoetan geratzen dira eta beste asko ikatz aktiboak harrapatu eta zurgatzen ditu. Gaine-



Hegaztiak taldean daudenean hobeto jan eta otzanago portatzen dira horretantxe ari diren oiloak bidez erakusten zaizkienean.

duten ikerlan serio baten ondorio da. Arazoa funtsean honakoa da: hegaztiak (oilak, oilo, oilasko eta oilandak) taldean daudenean hobeto jan eta otzanago portatzen dira horretantxe ari diren oiloak bidez erakusten zaizkienean. Edonork pentsa dezake horrek inolako garrantzirik ez duela, baina hegaztiak hazten dituenarentzat oso baliagarria da. Hegaztiak hazten dituenarentzat izan ere, behar bezala jan dezaten ezinbestekoa da, azken finean gizendu eta haragia lortzea nahi duelako. Argitu beharra dago oilo haserre eta erasokorrek gaizki jaten dutela. Beren lagunekin borrokan hasten dira, odola isurtzeraino. Beraz, oilategietan bideoak ipini beharko ote dira? Adituek diotenez oraingoz sistema ez litzateke oso praktikoa izango,


baina batek daki aurrerapenak medio hemendik urte batzuetara janaridendetan "Bidez hazitako oiloek errundako arrautzak" errotulua ez ote dugun ikusiko. Gaia, dena den, serio aztertu dute zientzilariek, animaliengan imitazioak eraginik zuen ala ez ikustea nahi zutelako. Jaten ari den zakurrak ondoan dagoen zakurra ere jatera bultzatzen ote zuen jakin nahi

zuten. Horregatik, filmatutako oiloa pozik kakaraka ipintzen da eta horrek ikusle direnak gehiago jatera eta patxadaz egotera bultzatzen ditu.

## Etxe ekologikoa

**M**ontreal inguruko Sainte-Dorothee herrian, ahalik eta energia gehiena aurrezten duen "Novtec" izeneko etxea eraiki dute. Alderantzizko osmosiaren bidez tratatzen du ura eta domotika-arloko aurrerapen asko du bere baitan. Birziklatutako beiratik ateratako zuntzak ditu hormetan eta etxeke tresnak beren energi kontsumoaren arabera hautatu dira.

Alderantzizko osmosiaren bidez tratatzen du ura eta domotika-arloko aurrerapen asko du bere baitan.




Ikatz aktibozko iragazkia du lorontziak eta airea ponpa baten laguntzaz zurgatzen da.

rako poluitzaileak lurreko mikroorganismoek desegiten dituzte.

## Oilo telebistazaleak

**O**iloak telebista ikustea atsegin du, telebistan oiloak erakusten bazaizkio. Baieztapen honek adarjotzea dirudien arren, Ontario-ko Guelp unibertsitatean egin



Airea garbitzeko dauden landare apaingarriak ere garrantzitsuak dira "Novtec" izeneko etxe-eredu honetan. Jardineko zuhaitzak ere, etxean haizea eta Eguzkiagatik ahalik eta tenperatura-aldaketa txikienak izateko moduan kokatu dira. Koniferoek haize nagusiei oztopo egiten diete eta gainerako zuhaitz-motak udan hosto zabalei esker etxeari itzal egiteko moduan ipini dira. Neguan berriz, historik gabeko adar meheak direla eta ahalik eta argi gehiena helduko da etxera.

Jardineko belarra ere propio aukeratu dute. Basamortuko belar-mota bat denez gero, ura ere ohizkoaren erdia behar du.

### Tibet nuklearizatzen ari da

azko urriaren 5ean Txinak munduan lurrazpiko saiakuntza nuklearrei buruz zegoen tregua hautsi egin zuen, Tibeten egindako leherketa bat medio. Garai batean (1949. urtean Txinak konkistatu zuen arte), Txina eta Indiaren tartean dagoen Tibet herri baketsua zen. Orain ordea, 300.000 soldadu eta Txinako misil nuklearren laurdena daude bertan. Tibet berez oso lurralde zabala da (2,5 milioi kilometro karratu ditu eta Mendebaldeko Europa adina da azaleraz) eta batezbeste 4.500



Alemania, Suitza eta Japoniak Txinarekin elkarrizketak izan dituzte beren hondakin erradioaktiboak har ditzan, eta badirudi hondakin horiek uzteko lekua Tibet izango dela.

metroko altitudea du. Munduko gune nuklearizatu garrantzitsuenetakoa den arren, Vienan egoitza duen Energia Nuklearrerako Nazioarteko Agentziak ez du ikuskatzeko baimeunik. Beraz, oso zaila da Tibeten zer gertatzen ari den jakitea. Dena den, Quinghai edo Koko lakuaren ondoan "akademia berria" izeneko zientzilariegoitza detektatu dute. Txinak ikerketa nuklearrak egiteko duen zentru garrantzitsuenetakoa izango da hau eta badirudi Txinak bere lehen bonba atomikoak horixe lortu dituela. Hiri atomiko sekretu guztietan bezalaxe, bonba atomikoa lortzean sortzen diren hondakin erradioaktibo guztiak edozein lekutan lurperatuko zituzten, ingurugiroa kutsatuz. "Akademia berria" delakoaren inguruan dena den, ohi ez bezala gaitz

eta heriotzak ugari izan dira. Golmud hiritik iparraldera, Quinghai eta Sichuan probintzien artean eta garai bateko Txinako mugan ere arma nuklearrak detektatu dituzte. Hor egon daitezke kontinentarretako misilak. Alemania, Suitza eta Japoniak Txinarekin elkarrizketak izan dituzte beren hondakin erradioaktiboak har ditzan, eta badirudi hondakin horiek uzteko lekua Tibet izango dela.

### Suediako izokinak galtzear

Suedian izokin-haztegieta gaitz misteriotsu bat medio arrainen % 90 hiltzen ari da. Adituek diotenez, M74 izeneko gaitz ezezagun hori dela eta Baltiko itsasoko izokin guztiak ezkuta dai-

tezke belaunaldi batzuetan. Urte askotan izokinak ez dira Suediako ibaie-tan gora joan, horietan presa hidroelektrikoak egin dituztelako. Horregatik plan baten arabera izokin emeak harrrapatu, arraba bildu eta haztegieta inkubatu ondoren bi urteko izokin gazteak itsasoan uzten dituzte. M74 deitutako gaitz ezezagunak ordea, eme eta izokinkumeak kutsatu eta hil egiten ditu. Gaitza bakterio edo birusen batek sortzen duenik ez dute uste. Ikerlariak diotenez, Baltiko itsasoan ugari den DDT edo antzeko pestizidaz toxikatzearen ondorio izan daiteke.



Baltiko itsasoko izokin guztiak ezkuta daitezke belaunaldi batzuetan.